

Doorphone

Hau etorkizuna da, zure mugikorra giltza.

Segurtasunak geroz eta garrantzi handiago duen gizartean, gure bezeroen etxebizitzetako eta beste lokal edo eraikinetako sarbideetan segurtasuna bermatzea helburu du gure enpresak. Giltzak galdu edo etxean uztearen arazoa ekiditea lortzen da gure produktuarekin. Mugikorrean instalatutako aplikazio berritzaile eta ulerterrazakin, ateak irekitzeko sistema integrala da Doorphone. Giltzak, txartela edo bestelako beste elementu bat eraman beharrik gabe, mugikorretik bertatik ireki daitezke ateak Doorphonekin.

Gaur egun mugikorra denerako erabiltzen dugu eta ahaztea ez da ohikoa. Gainera, ez dago beste aplikaziorik zerbitzu hau betetzen duena. Eta segurtasun handiagoa ematen du giltzekin konparatuta. Horrez gain, ateak distantzia batera ireki daitezke, ateraino gerturatu behar izanik gabe. Beste pertsona bati giltzak utzi diezazkezu distantziatik (bidaltzen mugikorretik). Giltzekin, ordea, pertsona horretara gerturatu behar duzu. Gainera, eskeintzen dugun sistemak, sarbideen kudeaketa pertsonalizatua ezartzeko aukera ematen du (pasahitza, hatz-aztarna).

Ateak irekitzeko gure aplikazioarekin, segurtasun pribatuaren sektorean lider izan nahi dugu. Horretarako, berrikuntzaren aldeko apustua egiten dugu, mundua eta bereziki gure etxeak leku seguruagoak izan daitezen. Pertsonak zaintzen ditugu eta jasangarritasunarekiko konpromiso handia hartzen dugu.

Gure sistemetan eko-diseinuak erabiltzen ditugu, birziklatutako materialak erabiliz ekoizpenean. Energia berriztagarriak dira gure energia iturri, izan ere, berrikuntza teknologikoekin batera gure lurraren iraunkortasunaren aldeko apustua egiten dugu.